

FAUNA PUBLIKOA

"Irungo EAJ herriaren alardearen alde dago"

Xabier Iridoy,
Irungo EAJko bozeramailea (Hitza)

Ez esan tristea ez denik



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Andre eta jaunok: hauteskunde-kanpainan gaude. Tira, beti gaude hauteskunde-kanpainan, baina udaletako poltronen zozketa berria egiteko urtebete eskas falta denean, pixka bat gehiago. Eta udaberrian hibernaziotik ateratzen diren marmota, triku, igel, musker eta sugeen antzera –zuek hautatu horietako zeinen antzerago–, hasi dira politikiariak hurrengo legegintzaldian elikatzeke boto-ehizan.

Irunen, non EAJk gobernu-akordioa puskatu zuen PSE-EErekin utzarrilean; eta non ekain hasieran aurkeztu duten Iridoy hirugarrenez hautagai, badirudi jeltzaleek asmoa dutela erronka serioa botatzeko Jose Antonio "hiri hau nirea da" Santanori. Eta klaro, Irunen irabazi nahi baduzu, ez da tokatzen esatea alarde diskriminatzaileari pixka bat molestatuko dion txorradarik, are gutxiago, egungo alkateari gai horretan gotortzeak eman dizkion emaitzak ikusita.

Pentsatu nahi dut horrek esplikatzeko duela, eta ez fanatismo hutsak, hautagai jeltzalearen deklarazio *völkisch* samar hau.

Gauzak aklatu ditut behintzat, zeren, iazko San Martzial egunean dudak sortu zituen jende onberaren artean Irungo Batzokiko baloiko argazkiak: lehenbizi zabaldutako irudian, desfile parekideari bizkarra eman zieten afiliatuak bakarrik ikusi genituen; gero, irudi bertikal batean, goiko baloian, alarde parekidea txalotzen zuten beste zenbait. Orain badakigu: Iridoyrentzat bigarren horiek ez dira "herria". Ezta konpainia parekideetan desfilatzen duten beste irundar guztiak ere –geroz eta gehiago, portzierto–. Ezta desfile hori txalotzen dutenak ere.

Ikuspegi horren arabera, besteei herritartasuna kentzetik hasten baita herria zerbait izaten. Ez esan tristea ez denik. ■


EZ HANKA EZ BURU!



EUSKARA, JALGI HADI PLAZARA...BAINA EZ SOBERA!

LURRAZPIKO HIZKUNTZA IZATETIK
"LURRALDE HIZKUNTZA" IZATERA...?

ALEGIA,
HIZKUNTZA BAT DA OFIZIALKI,
EZ ORDEA,
HIZKUNTZA OFIZIAL BAT...



ADUR